

Xabier Etxaniz Erle

EHUKO IRAKASLEA

## Irakaskuntzaz eta

**I**raila amaiera aldean Deustuko Unibertsitateko errektoreak, ikasturte hasierako ekitaldian zela eta, Erkidegoko unibertsitateen arteko diru banaketa berria eskatu zuen. Gaur egun Unibertsitate Sistema bultzatzeko diruaren zatirik handiena Euskal Herriko Unibertsitateak jasotzen du, eta Deustuk, bere ikasle kopuruaren arabera, diru partida handiagoa merezi duela uste du.

Onartu behar dut eskaera hori ez dela arrotza euskal irakaskuntzan, horixe bera egin izan dute behin eta berriro –eta neurri handi batean lortu ere– unibertsitate azpiko sarean dauden ikastegi eta erakunde pribatuek. Batzuek herrikoiak direlako, beste batzuek euskal herritarrak hezten dituztelako, hangoek gurasoen inplikazioa ere bilatzen dutelako, beste horiek... denek eskatzen dute, zerbitzu publikoa egiten duten neurrian, gastuen finantziazioa.

Kontua, baina, ez da hori; hemen erakunde eta estamentu publiko eta pribatuak oso modu arinean nahasten dira, eta instituzioen aldetik nahasketa hori bultzatzen da. Harrigarria da ikustea Hezkuntza sailak, irakaskuntzan ari garenez, nola bultzatzen duen irakaskuntza pribatua publikoan behar handiak egonda. Harrigarria finantziazioaz hitz egitea baina



ALEX LARRETXI

ez irakasleak kontratatzeko, ikasleak hartzeko edo curriculum zehatzeko prozeduraz, esaterako.

Deustuko Unibertsitateak, eta imajinatzen dut Mondragonek ere, diru gehiago nahi dute, instituzio publikoen dirua, ni ez nago horren kontra, lehendik instituzio publikoek bere unibertsitatearen beharrak ase badituzte. Hemen argi eta garbi esan behar delako Eskola Publikoa dela Jaurlaritzarena, EHU dela Erkidegoko instituzioen unibertsitatea, eta askotan ematen du beskeen parean daudela, Jaurlaritzakoek ez dituzte beretzat hartzen. Legeak markatzen

du nola sar daitekeen pertsona bat lan egitera erakunde publikoan, prozedura publikoak eta gardenak izan behar dira, soldata politikariek erabakitzen dute... haien atetara jotzen duen oro hartu behar dute.

Esku artean aldizkari bat duzu orain, irakurle. Euskaraz eta Euskal Herrirako, euskal herritarrontzat eginiko aldizkaria. **ARGIAK** bere zerbitzua egiten du, zerbitzu publikoa esango genuke. Inori bururatzan al zaio **ARGIA**ko gastu guztiak Jaurlaritzak ordain ditzala esatea?

Susmoa dut euskal irakaskuntza sistemako agente asko horixe bera eskatzen ari direla beren zentroentzat... eta instituzioetatik baietz erantzuteko prest daudela tamalez. ■



Harrigarria finantziarioaz  
hitz egitea, baina ez irakasleak  
kontratatzeko, ikasleak hartzeko  
edo curriculum zehatzeko  
prozeduraz, esaterako



## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



...sería bonito si no fuese por los putos vascos". Bidasoa

inguruetako taberna bateko komunean irakurria. Ez dut ohiturarik tabernak komuntzat erabiltzeko, baina batzuetan beharrak agintzen du eta holakotan garestiena aukeratzen dut lanak behar bezala burutzeko. Oraingoan txoferrek, garraiolariek erabiltzen duten bat egokitu zait. Ez nuen aukerarik eta tripek libratu nahi zuten. Abiatu naiz. Babel bat ate gibelean eta rotringen arrastoak mezu. Portugaldarren batena, errebindikatiboa hizki gorri larriz. Azpian, boligrafo urdinez, lerro okerrez

## El País Vasco...

goian aipaturikoa. Sinpatikoa gaztelarra. Ez dit beherakorik ekarri.

Haatik, lehengo astean Gaztelako herrixka bateko gasolindegiko langileak esana ekarri dit gogora: “Bete egidazu”. “Euskaldunak?”. “Bai jauna...” “Hau madrildarren komuna duzu, asteburukoa eta abuztukoa bereziki. Ikusten dituzun etxe itxi guztiak haienak dituzu, eta herritarrak haien zerbitzari. Hemen ez dugu zuek adinako barrabilik bertakoa defendatzeko eta goitik behera egiten digute. Gu ez gaitu krisiak harrapatuko, ito egingo gaitu”. Harritu egin ninduen, ez nuen asmatu deus esaten. ■